



Ez dira seiak izan gelan sartu naizenean. Zortziak dira orain. Ingelesko klasetik etorri eta koadernua, liburu urdina, berdea eta workbook-a ohe gainean utzi ditut, hara joan aurretik institutuko motxila astuna utzi dudan leku berean. Izan ere, oso txikia da armairuaren beheko apala —goikoan jantziak dauzkat—, eta han zerbait gorde nahi izanez gero, ordenatzen ibili behar da, leku nimiñoenari ere airea kenduz. Beste era bat, sendo eta gogotsu sentitzen denarentzat behinik behin, liburuak, motxilatik atera gabe, indar eginez sartu eta atoan ixtea da. Baina eragozpen bat dauka honek: sargentuak, asteroko kontrolean, atea ireki eta dena gainera jaustean, botatzen dituen intziriak.

Beraz, ohe gainean utziriko motxilatik, skilariaren irudia duen estutxea, pegatinaz beteriko karpetzarra eta lan egiteko gogo pixka bat atera dut —gehiegi ateratzea oso arriskutsua baita— eta mahai gaineko zikineko orrialde, plastiku eta beste hainbat abar eskuaz izkina batera eskobatue skubatu-ostean, lan egiteko piura hartzen hasi naiz.

Erdian karpetzarra, eskubian estutxetik atera berri izan dudan Bic bolaluma, Milan borragoma eta Alpino lapitza eta gorputz barruan, desagertuz, lan egiteko gogoa. Prest beraz. Et, et, et, gauza garrantzitsu bat ahaztu zaidalakoan naiz. Mekasuenlaletxe, berriro kendu dit mahaitik.

Mahaian eskuekin indar egin, aulkia atzeruntz bidali eta altxatu egin naiz, nire gelako atea zabalduz. Etxeko korridore luzea iragan dut «Gernika»ren begiradapean eta bukaeran eskuineko sarlekua den haritz zurezko ateko metalezko oralekuan indar eginez, gela mada-rikatuaren aurrean aurkitu dut nire burua. Eta baita deliktuaren gorpua kausitu ere, ondo pentsatu ostean bahitua berau: magnetofonia.

Desentxufatu bezain pronto gela hartatik alde egin dut, bahitzaileek ez baitute gustukoa izaten beren ezkutalekuetan inor ibiltzea, eta are gutxiago euren etsai nagusia.

Ene gelan, arrebarenean eginiko kontrakoa egin ostean, magnetofonia entxufatzea alegia, karpetzarra zabaldu eta ikastolan idatziriko zenbait ohartxo ikusi ditut, une batzuk geroa-



go egin beharreko lanak gogora ditzadan: «finituko duka nehoiz latina?», «urgente, stop, biherko euskerako beharra» eta «fisikea e'in bi'ok».

Fisika!, gauza zatarragorik? «Baina lanak egin behar dira» pentsatu du barruko auskalo zein zatik. Fisika eta biok, ordea, ezin gara batera egon. Reagan Lenin-ekin imintzea bezala da, ezinezkoa, bata orain hirurogeitamar urte eta bestea orain artino ez baita hil. Orain artean, arreba bezala, derrigorra izan delako ikasi izan ohi dut fisika, baina datorren urtean, hirugarren mailan, betirako baztertuko dut (fisika, noski, arreba nahi eta ez betirako daukagun zama da, norbera baino gazteagoa bada, batik bat). Nola azal niezaioke irakurleari fisika eta bion arteko jasanezina, bera eta bere perfekzioarekiko nire higuin eta amorrua, teknikotasunaren aurkako narda eta une honetan otutzen ez zaizkidan beste adjektiboak? Pertsonok ez dugu garrantzirik, aurkitzea da gauza, ez aurkitzailea edo eta bere uste, maitasun, amets, gogo, sentimentu, alegera eta goibeltasunak (izan ere, ez da ez asmakuntza makala *Sinonimoen hiztegia*). Gainera, ez daukat fisikako klasea azken ordurarte eta atsedendian kideren batek utziko dizkit bere lanak.

Eta latina ez daukadanez etzirarte, euskarakoa hasteko prest aurkitu dut ene burua,

baina lehenago atzamar erakusleak, Play boitoiaren gainean finkatuz, bete du idazten ari denaren ore urdin arrearen guraria, magnetofoiaren gorputz anitzak lanean hasi direlarik, zintaren banda leitzean, musika iritzi miraria sortuz.

Baita azkar bukatu ere! Auskalo ze talde den pop, espainiarren abestiekin! Nork egin lezake idazlan txukun bat, esaldi sakon, adjektibo zehatz eta egoki eta esakera jatorrekin?

Beraz, aipatu zinta ateraz, aulkia atzera egin eta altxatu egin naiz, lanean hasi aurretik bigarren aldiz irtenez ene gelatik. Eta bigarren aldiz baita ere, korridore luzea iragan eta arrebarenen sarrera den ezkerreko atea hartu ordez egongelara zaramatzen eskuinekoa iragan dut.

Pertsona fin baten gisan, zinta bere kaxan sartu eta idazlanetarako giltza izan ohi zaidan Ruperrenaren bila hasi naiz. Aurkitu eta arinetan irtetzera nindoan, nahi ez nuen drogaren aurrean jausi aurretik. Eta lortua nuela uste izan dudanean bere deia sentitu dut. Ikaragarriko erakarpen indarra izan da eta bortizki ninderaman sofara, ordurako gogo guztiak bere men egoki.

Hantxe neukan; begi arreotan ez zen lauso izpirik ageri, beti bezain laukizuzen, ene denbora xurgatu, irentsi asmoz. Baina oso gutxitan

egiten dudan indarra eginez, esnatu egin naiz eta botoiz beteriko mandoa ediren dut eskue-tan.

Ahal bezain laster egongelatik irten, korrido-rea iragan eta atea itxiz gelan sartu naiz. Egin berri nuen ausarkeriaren ostean, euskarako lanak umekeria bat izan behar zuen. Zer zen bada pare bat folio, zentzudun hizkiz, hitzez, esaldiz betetzea, Ruper, eta beraz Bernardo, Sarri eta Iturraldere laguntzarekin?

Baina jadanik berandutzen hasia zen eta hasia nengoen, baita ere, aurrean nuen lana uste bezain erraza ez zela izanen ikusten, Ruperren lehen nota irakurri eta jalgi duenean magneto-foiak.

Anphora hausten bukatu denean, idazten duen honen garunek —amorruek bihotza aspaldidanik zuen baztertua— berdin zerraiten. Galtzetan gordetzeko koblek ez didate ez ideia gutxi eman eta zazpi t'erdietan zirriborroz beteriko folioei so egitean, ez dagokidan aro bate-tan jaio naizena ohartu naiz. Ez dago zeregin-ik, gaur egun plajioa modaz landa egoteaz gain, txarto ikusia dago. Eta hain ederra da izan ere!! Itxaropen guztiak galduz desespera-zioan jausi da ene tentsioa eta korridore ostean —eskumako atearen ostean— dagoen drogak gero eta bortizkiago deitzen ninduen.

Neuronek pasada txar bat jo didate orduan:

ene egoera txarra zela medio, desesperazioaren inguruko faktoreek eta giro kargatua beste abar ororekin batuz, ideia arraroak pentsaraz-ten zizkidan kontraesan bitxiak sortu dizkida-te, odola irakiten jarri zait eta sukar bereziak puntu gorena lortu duenean (fisikako lanak egitea pentsatu dut), atean giltzen soinua ent-zun eta bat·batean amarekin kausitu dut ene burua, bere lanari buruzko meeting osoa ez-tiki adituz, estraineko aldiz bizitza honetan. Zer-txobait lasaitu naiz behinik behin —dexente, egia esan—, baina, bihotzak oraingoan, lana bukatu behar nuela ohartarazi dit eta zortziak eta hamar izanik, afaria laster prest egonen zela arrapostu dit amak.

Hurrengo hogeit minutuetan, Ruperrek pla-jiatzaile bilakatu nau berriro ere, baina plajio zoragarriok zirriborro hutsetan geratu dira berriro. Azkenik, sukaldetik afaria prest zegoela zioten eleak heldu dira idazten ari den honen belarrietara. Goibel xamar korridoreâ iragan eta sukaldeko atarian egon naiz, aitak zera gal-detu didanean: «zer egin dok arrasti osoan?». Pixka bat beranduago hasiko nintzela afaltzen esan eta gelan sartu naiz, idazten hasiz. Zortzi t'erdia ziren eta ideiak argi nituen, honela ha-siz: «ez dira seiak izan gelan sartu naizenean. Zortziak dira orain. Ingelesko klasetik etorri eta...» ■

